

EGURATSA

Izarrak aztertzen asi-aurretik, urrago daukaguzan gauzak aztertu daiguzan: Argia, odeiak, aizeak.

Gure gaiñean dagon eguratsak mailla oneik daukaz: Troposfera 11 km.; estratosfera 11'tik 110 km'ra; ionosfera 110 km'tik 800 km'ra eta 800 km'tik gora eksosfera.

ARGIA: argiak zazpi arlotan banatzen diran abiada ezbardineko dizdikaz daukaz eta zazpiak ikusiko doguz argia zazpi zati egiten ba'dogu, baiña zelan loru ori?

Artu daigun leiarrezko prisma edo zati lodi bat eta eguzkitan ipiñi, prisma orrek argia zatitu egingo dau, arriñen doan dizdikazagaz asi, gorria, eta astiroen doanera, ubela. Zazpi margo oneik daukaz bere barruan zuri agertzen dan argiak: gorria, lanranja-margoa, beillegia, orlegia, urdiña, anail-margoa, ta ubela.

Prisma edo leiar-zati orrek gure eskuetan egin dauana bera, egiten dabe laiñoak ortzipean eta ortik sortzen da uztarkua edo iris arkua, Erroma'ko Zubia be esaten dautsoena. Gauza ederra laiño-artean. Ez dau iñoz bildurrik sartzen jazokizun arrigarri orrek eta Biblia'n be bakearen ezaugarri lez agertzen da.

Goiz-erdian edo arratsalde-erdian ikusiko dozu, euri-egun eta laiñotsuetan, eguzkia ertzetik datorrelako.

ODEIAK troposferan dagoz eta ez dira ur lurrunduak baiño.

Itxasotik eta lurreko lurrunetatik sortzen dira eta artzen daben ur lurrundua gora jazoten dabe gero lurraren gaiñera euri lez isuriteko. Orra or lurra ureztatzeko izadiak dauan bide arrigarria.

Gero lur-gaiñean ibaiak sortzen dira barriro geiegi dan ura barriro itxasoratzeko.

Gorengo odeiai laiñoa deritxe.

Lau odei-mota dagoz: 1) Zerrendak 1.000 m'ra; 2) lanpuak edo euri-odeiak, 1.200 m'ra; 3) legorrak edo egualdi onekoak, oneik algodoi-antza eukiten dabe eta 500-800 m'ra dagoz eta 4) ipar-odeiak, urriñen dagozanak.

AIZEAK: eguratsa ez dago geldi, ibillian dabil. Aizeak ekuador edo lur-garrian sortzen dira, berotan, eta gora igoten dabe beko presiñoa, estutasuna, kenduta (alisioak dira) eta beko utsunera sartzen da aizea egoal-detik eta ipar-aldetik (alisio aurkalariak dira).

Indi-aizea erdikoa da eta sei illebete irauten dau, aize monzoiak dira eta ura be ekarten dabe.

Beste aize-mota bat, itxasoko aize fiña da (brisa) eta au ura lurra baiño beroago dagoalako goizean itxasotik lurrera etorten da, eta arratsaldean lurra ariña otzitzen dala aize fin ori lurretik itxasora joaten da.

Gure artean erriko aizea ezagutzen dogu, lur-barrutik datorrena, ipar-aizea be bai, goi-aldetik etorri eta otza ekarten dauana. Ba-dagoz beste aize batzuk be curen izen eta guzti.

Baiña ezin itzi aitatu barik tifoï eta urakan bildurgarriak. Oneik tropiko-aldekoak dira eta bildurgarriak lurrean dana apurtzen dabelako eta itxasoan bildurgarriagoak itxason-tziak urperatzen dabelako, aundienak be bai.



Su-mendiak.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

BiZKAITARRAI-BiZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BiZKAi'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU